

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

JARDUNALDIA / JORNADA

Tradizioa berrinterpretatzen: Moda eta herri-sustraiak

Reinterpretar la tradición: Moda y raíces populares



Tradizioa berrinterpretatzen: Moda eta herri-sustraiak

Ikatza eta belusa erakusketak Cristóbal Balenciagak goi-mailako joksintzan eta Ortiz Echagüek Spainia tradizionalaren argazki-erretratuetan, janzkeria herrikoiaz izan zuten ikuspegi artistiko-dokumentala eta egin zuten berrazterketa estetikoa ditu ikergai. Bi artista horien obrak harremanetan jartzen dira, eta interpretazio desberdinak egiten dituzte errealtitate berari buruz: xx. mendearen lehen hamarkadetan ahitzen ari zen jantzi herrikoiaz. Biek ala biek indarra eman zioten eta izaera atenporalaz hornitu zuten, ezin ukatuzko kalitate artistikoa duten lanen bidez. Argazkigintzak eta modak bat egiten dute ingurune horretan, jantzi herrikoia eta haren balio unibertsalak omentzeko, eta, era berean, tradizioa berrinterpretatzen eta sorkuntzarako eta berrikuntzarako iturri gisa hartaz baliatzen jakin zuten bi artistak ere omentzeko.

Cristóbal Balenciaga Museoak Kutxa Kultur Modarekin elkarlanean aurkezten du jardunaldi hau, erakusketan parte hartu duten hainbat adituren ikerketen fruituetan gehiago sakontzeko.

Reinterpretar la tradición: Moda y raíces populares

La exposición *Carbón y Terciopelo* explora la visión artístico-documental y la revisión estética que de la indumentaria popular realizan Cristóbal Balenciaga, en sus creaciones de Alta Costura, y Ortiz Echagüe, en sus retratos fotográficos de la España tradicional. La obra de estos dos artistas dialoga ofreciendo interpretaciones de una realidad, la del traje popular, que se extinguía ya en las primeras décadas del siglo xx y a la que ambos, a través de trabajos de innegable calidad artística, dan vigencia y confieren una calidad atemporal. Fotografía y moda se unen en este contexto para rendir homenaje al traje popular, a sus valores universales, y al trabajo de dos artistas que supieron reinterpretar la tradición y se valieron de ella como fuente de creatividad e innovación.

Cristóbal Balenciaga Museoa, en colaboración con Kutxa Kultur Moda, presenta esta jornada que pretende ahondar en las conclusiones introducidas en la muestra, fruto de la investigación de varios especialistas implicados en el proyecto expositivo.

Aurkezpena

DENIS ITXASO

Cristóbal Balenciaga Fundazioko presidentea.

Hitzaldia

JAVIER ORTIZ ECHAGÜE

Teknika eta artea, Spainiako herri-erretaratuan. José Ortiz Echagüek ikuspegí artistikotik jorratu zuen janzkera herrikoiaren inguruko lana, ez soilik arlo dokumentaletik. Ingeniaria zen lanbidez, eta bere denbora librearen zati handi bat herri-janzkien argazkiak egitera bideratu zuen xx. mendeko lehen hamarkadetan. Javier Ortiz Echagüek Guadalajarako argazkilari eta bildumagilearen lan-metodoa aurkeztuko du, baita errebelatzeko erabiltzen zituen teknika eta prozesua ere; izan ere, ikatza zuzenean jartzen zuen fresson paperaren gainean, eta teknika horri esker lortu zuten bere argazkiek halako arrakasta.

Hitzaldia

IGOR URIA

Tradiziotik abangoardiara. Cristóbal Balenciagak, bere ibilbide profesionalean zehar, iturri eta erreferentzia ugari eta era askotakoak erabili zituen inspiratzeko garaian, eta, besteren artean, janzkera tradizionalak ematen dituen aukerak ikertu zituen, sormen-iturri gisa. Igor Uria Zubizarreta, Cristóbal Balenciaga Museoko bildumen zuzendaria eta erakusketaren komisario elkartua, Getariako diseinatzaileak herri-jantziaren errealitateari buruzko informazioa nola bildu zuen, eta bere espazio-

denbora koordenatuen testuingurutik nola atera zuen azalduko du, nazioarteko go-mailako jokitzaren abangoardia bihurtzeko.

Hitzaldia

ANA BALDA

Herri-janzkiaren gaineko bi begirada. Cristóbal Balenciagak eta José Ortiz Echagüek inspirazio-iturri izan zuten herri-janzkera euren ibilbide sortzailean, modaren munduan lehenak eta argazkilaritzan bigarrenak. Erakusketaren komisario Ana Baldak bi sortzaileon obren arteko paralelismo eta elkarguneak azalduko ditu. Herri-janzkeraren gaineko euren ikuspegiaren arteko gertutasunak erakusten duenez, bi gizek balioa eman zioten herri-janzkiari, eta, horrez gain, kontzeptu atenporal bihurtzea ere lortu zuten.

Solasaldia

Tradizioa eta artisautza, gaur egungo moda sortzeko prozesuetan. 2016ko azaroaren 3tik 6ra bitartean, Cristóbal Balenciaga Museoak ikastaro teoriko-praktikoa bat eskaini zuen Elisa Palomino irakaslearen eskutik, aldi baterako erakusketa honekin lotuta. Ikastaroan, ehungintzako sorkuntza tradizionalean erabilitako teknika eta estetikak moda-munduko sorkuntza-prozesu berrietan nola aplikatu aztertu zuen, beharrezko egokitzapenak landuz. Kutxa Kultur Modako hiru diseinatzaile egoiliar ekimen hartan izan ziren parte hartzen, eta haien azalduko dute formakuntza-jarduera horretan bizitako esperientzia, jasotako ezagutza eta erreminten berri emanet.

Presentación

DENIS ITXASO

Presidente de la Fundación Cristóbal
Balenciaga Fundazioa.

Ponencia

JAVIER ORTIZ ECHAGÜE

Técnica y arte para el retrato popular español.
José Ortiz Echagüe cultivó su trabajo en torno al traje popular desde un punto de vista artístico, no meramente documental. Ingeniero de profesión, invirtió gran parte de su tiempo libre de las primeras décadas del siglo xx en realizar las fotografías del traje popular. Javier Ortiz Echagüe presentará el método de trabajo del fotógrafo y coleccionista guadalajarense así como su técnica y el proceso de revelado que utilizaba, el carbón directo sobre papel fresson, parte esencial del éxito de sus fotografías.

Ponencia

IGOR URIA

De la tradición a la vanguardia.

Cristóbal Balenciaga empleó a lo largo de su trayectoria profesional diversas y muy variadas fuentes y referencias a la hora de inspirarse, y ahondó, entre otras, en las posibilidades de la indumentaria tradicional como fuente de creatividad. Igor Uria Zubizarreta, director de colecciones del Cristóbal Balenciaga Museoa y comisario asociado de la muestra, explicará la manera en que el diseñador getariarra se documentó en la realidad del traje popular y lo descontextualizó de sus coordenadas espacio-

temporales, para convertirlo en vanguardia de la Alta Costura internacional.

Ponencia

ANA BALDA

Dos miradas sobre el traje popular.

Cristóbal Balenciaga y José Ortiz Echagüe emplearon la indumentaria popular como fuente de inspiración para desarrollar sus respectivas carreras creativas en la moda y en la fotografía. Ana Balda, comisaria de la muestra, expondrá los paralelismos y encuentros planteados entre la obra de ambos creadores. Los diálogos en torno a sus correspondientes miradas sobre el traje popular explican cómo, no sólo compartieron una visión común de revalorización del traje regional, sino que, además, lograron convertirlo en un concepto atemporal.

Coloquio

Tradición y artesanía en procesos creativos de moda contemporánea.

Del 5 al 6 de noviembre de 2016, Cristóbal Balenciaga Museoa celebró en el contexto de la actual exposición temporal y a cargo de la docente Elisa Palomino, un curso teórico-práctico enfocado al estudio de la aplicación y adaptación de técnicas y estéticas empleadas en la creación textil tradicional, a nuevos procesos de creación de moda. Tres diseñadores residentes de Kutxa Kultur Moda participaron en la iniciativa y, de primera mano, explicarán su experiencia en esta actividad formativa, y los conocimientos y herramientas adquiridas en la misma.

JAVIER ORTIZ ECHAGÜE

Artearen Historian lizentziatura eta Informazio Zientzietan doktorea da Madrilgo Unibertsitate Konplutensean. Irakasle-lanetan aritu da Gazteloa-Mantxako Unibertsitateko Cuencako Arte Ederren Fakultatean zein Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatean, eta irakasle bisitaria izan da Probentzako Unibertsitatean eta New Yorkeko Unibertsitatean. Madrilgo Sofia Erregina Museoko *Desbordamiento de Val del Omar* proiektuko komisario laguntzailea izan zen, eta, egitasmo horretan, José Val del Omarren testuen antología argitaratu zuen: *Escritos de técnica, poética y mística* (MNCARS, 2010). Era berean, Kataluniako Arte Museo Nazionalean 2013an egindako Ortiz Echagüe. Norte de África erakusketaaren komisarioa ere izan zen. Bestalde, *Yuri Gagarin y el conde de Orgaz. Mística y estética en la era espacial* (Jorge Oteiza, Yves Klein, José Val del Omar) liburua ere argitaratu zuen 2014an, Jorge Oteiza Museoaren eskuak. Gaur egun, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko irakaslea da Nafarroako Unibertsitatean, baita Nafarroako Unibertsitateko Museoko komisario elkartua ere.

IGOR URIA

Cristóbal Balenciaga Museoko Bildumen zuzendaria da 2014tik, eta kontserbatzaile-zaharerritzailea eta erregistratzailea 2004tik. Cristóbal Balenciaga Museoan bertan zaharerritzeak egiten eta erakusketaak muntatzen aritzearaz gain, beste erakunde batzuekin ere aritu da, hainbat egitasmotan;

adibidez, Monakoko Grimaldi Forumeko *Les années Grace Kelly*, Madrilgo Thyssen-Bornemisza Museoko *Hubert de Givenchy* eta Bilboko Arte Ederren Museoko *Balenciaga* erakusketaetan. Arte Ederretan lizentziatura da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta graduondoko ikasketak egin zituen Deusto-ESADEn, Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, Lyongo Centre International d'Etudes des Textiles Anciens zentroan eta Londreseko Victoria & Albert Museum prestigiotsuan. Azken museo horretan, *Curating Fashion and Dress* ikastaroa egin zuen. Aldizkari espezializatuetan zein katalogoetan artikuluak argitaratu izan ditu. Gasteizko Santa María Katedrala Fundazioko ondarearen inventarioa egin zuen, eta Espainiako hainbat museotan zaharerritzaile aritu da.

ANA BALDA

Ana Balda Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatura da, eta Komunikazioan doktorea, Nafarroako Unibertsitatean. Enpresa-kudeaketan ibilbide oparoa egin ostean, modaren mundura bideratu zuen bere ibilbide profesionala, Balenciaga etxearen komunikazio-politikaren inguruko doktoretesi batekin. Balda modaren historian, argazkilarriztan eta prentsan espezializatuta dago. Artikulu zientifiko eta dibulgatzairen ugari idatzi ditu, eta gaur egun *Moda diseinuaren historia* eta *Modaren irudikapena prentsan: ilustrazioa eta argazkilarriza* ikasgaiak ematen ditu Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko Komunikazio eta Modako Nazioarteko Programan.

PONENTES

JAVIER ORTIZ ECHAGÜE

Licenciado en Historia del Arte y Doctor en Ciencias de la Información por la Universidad Complutense de Madrid, ha impartido clases en la Facultad de Bellas Artes de Cuenca (Universidad de Castilla la Mancha) y en la Carlos III de Madrid, y ha sido investigador visitante en la Université de Provence y en la New York University. Fue comisario asistente de *Desbordamiento de Val del Omar* (MNCARS, 2010), y en el contexto de este proyecto publicó la antología de textos de José Val del Omar, *Escritos de técnica, poética y mística* (MNCARS/La Central, 2010). También es comisario de *Ortiz Echagüe. Norte de África* (Museu Nacional d'Art de Catalunya, 2013) y autor del libro *Yuri Gagarin y el conde de Orgaz. Mística y estética en la era espacial* (Jorge Oteiza, Yves Klein, José Val del Omar, Museo Jorge Oteiza, 2014). Actualmente es profesor en la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la Universidad de Navarra y comisario asociado del Museo Universidad de Navarra.

IGOR URIA

Director de Colecciones del Cristobal Balenciaga Museoa desde 2014 y Conservador-Restaurador y Registro desde 2004, ha participado en la restauración y en los montajes de exposición tanto del Cristóbal Balenciaga Museoa, como de otras entidades como el Grimaldi Forum de Monáco con *Les années Grace Kelly*, el Museo Thyssen- Bornemisza con *Hubert de Givenchy*, el Museo de Bellas Artes de Bilbao

con *Balenciaga*, entre otros. Licenciado en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco, cursó estudios de postgrado en Deusto-ESADE, en la Universidad de Alcalá de Henares, en el Centre International d'études de textiles anciens en Lyon y en el Victoria & Albert Museum *Curating Fashion and Dress*. Ha colaborado con artículos en catálogos y revistas de prensa especializadas. Realizó el inventario del Patrimonio de la Fundación Catedral Santa María de Vitoria, y ha trabajado como restaurador para otros museos españoles.

ANA BALDA

Ana Balda es licenciada en Ciencias Económicas y Empresariales y Doctora en Comunicación por la Universidad de Navarra. Tras una amplia experiencia en el ámbito de la gestión empresarial, reorientó su carrera profesional hacia el mundo de la moda con una tesis doctoral sobre la política de comunicación de la Casa Balenciaga. Sus áreas de especialización son la historia, la fotografía y la prensa de moda. Autora de numerosos artículos científicos y divulgativos, actualmente imparte las asignaturas *Historia del diseño de Moda y Representación de la Moda en la Prensa: Ilustración y Fotografía*, dentro del Programa Internacional de Comunicación y Moda en la Facultad de Comunicación de la Universidad de Navarra.



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

OTSAILA / FEBRERO 18 – 11:30
SALA RUIZ BALERDI ARETOA. KUTXA FUNDazioa
TABAKALERa


T 943 008 840
info@cristobalbalenciagamuseoa.com
www.cristobalbalenciagamuseoa.com

Doako sarrera. Plaza mugatuak/ Entrada gratuita. Plazas limitadas
Beharrezko da izena ematea/ Inscripción necesaria

Cristóbal Balenciaga Museoak Kutxa Kultur Modarekin elkarlanean
antolatutako jarduera/ Actividad organizada por Cristóbal Balenciaga
Museoa en colaboración con Kutxa Kultur Moda



kutxa kultur
moda
kutxa FUNDazioa



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



OPAIN
GIPUZKOA

